

15 urte bete ditu CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak

15 urte, biomaterialen alorreko abangoardiako ikerketan eta ezagutzak industriara eta gizartera transferitzen

CIC biomaGUNEkin sinposio baten bidez ospatuko du bere 15. urteurrena, Donostiako Miramar Jauregian, zentroan trebatutako ikertzaileen partaidetzarekin

Donostian, 2021eko abenduaren 14an. [CIC biomaGUNE](#) biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan. Zentroaren ikerketa-ildo nagusien bidez, nanoegitura biofuntzionalak diseinatzeko, prestatzeko eta karakterizatzen dituzte eta haien ebaluazio biologikoa egiten dute *in vitro* eta *in vivo*, gero haiek erabiliz prozesu biologikoak ikertzeko eta tresna biomedikoak garatzeko, hala nola plataforma teranostikoak (ahalmen terapeutikoa eta diagnostikoa dutenak), multiterapeutikoak, medikuntza birsortzailerako plataformak eta irudi multimodalerako plataformak.

Gaur, egun osoz, beren 15. urteurrena ospatuko dute Donostiako Miramar Jauregian, ekitaldi zientifiko batekin. Ekitaldian, hitzaldiak emango dituzte CIC biomaGUNEen trebatutako eta zientziaren eta teknologiaren munduan aurrera egin duten hainbat ikertzailek. Horrez gainera, Aveiroko Unibertsitateko Joao Mano irakaslea (Portugal) izango dute gonbidatu berezi, Kimikako Espainiako Errege Elkartearen Madinaveitia-Lourenço Saria emango baitiote.

Mundu mailako erreferentzia-zentroa

Bere ikerketa-jarduera abiatu zuenetik, nazioarteko aitortzea erdietsi du CIC biomaGUNEkin, bidean lortu dituen emaitza zientifiko bikainei esker: 1.400 ikerketa-artikulu baino gehiago inpaktu handiko aldizkarietan; artikulu horiek 45.000 aipamen baino gehiago izan dituzte; 74 doktoretza-tesi amaitu dira zentroan, eta 33 tesi egiten ari dira orain; 19 patente-eskaera egin ditu, haietatik 7 onartu eta 6 lizentziatu dituzte. Horrez gainera, 200 ikerketa-hitzarmenetik gora sinatu ditu, enprekin eta kanpo-bazkideekin. CIC biomaGUNEkin 2 spin-off enpresa sortzen parte hartu du (MD-Renal eta [Asparia Glycomics](#)). Bestalde, 325 ikerketa-proiektutik gora lortu ditu: horietatik, 8 ERCaren diru-laguntza garrantzitsuak izan dira (European Research Council); GRAPHENE FLAGSHIP proiektua (Europako Batzordeak finantzaturako ikerketa-ekimen handienetako bat), eta AXA Research Fund-ek finantzaturako ikerketa-katedra bat.

Sari garrantzitsuen eskutik dator CIC biomaGUNEko ikertzaileen bikaintasun akademikoaren nazioarteko aitortzea (besteak beste, Ikerketa Sari Nazionala, Ikerketa Biomedikoko Lilly Saria, Real Society of Chemistry-ren Materialen Kimika Dibisioaren Horizon Saria, honoris causa doktoretzak, akademietako kideak, eta hiru taldeburu ikertzaile oso aipatutak jotzen dituen aintzatespena, besteak beste); horren adierazgarri da orobat nazioarteko biltzarretan hitzaldiak emateko gonbidatuta egindako ekarpen ugariak.

“Proiektu lehiakorretan (bereziki, Europako proiektuetan) lortu den arrakasta-tasa, ziurrenik, Espainiako handienetako bat izango da. Ezin ukatuzko heldutasuna lortu dugu; izan ere, CIC biomaGUNEko 11 ikerketa-taldeetako bakoitza lidertzat jotzen da dagokion espezializazio-eremuan. Maila zientifiko goren horri esker, gero eta harreman handiagoa daukagu hainbat alorretako enpresekin, elkarrekin proiektuak garatzeko helburuz”, dio Luis Liz Marzán Ikerbasque irakasleak, zeinak zentroko Zuzendaritza Zientifikoaren ardura izan baitu azken bederatzirteetan.

CIC biomaGUNEk Nanozientziako, Biomaterialetako eta Irudi Molekularreko instalaziorik aurreratuenak dituen ikerketa-azpiegitura paregabea du; erabat hornitutako ikerketa-laborategiez gainera, Plataforma Teknologikoak eta Irudi Molekular eta Funtzionaleko Instalazioa ere baditu — Europar irudi preklinikorako dagoen ikerketa-azpiegitura handienetako bat—.

2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zion Estatuko Ikerketa Agentziak, bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian. Halaber, Ikerketarako Giza Baliabideen Bikaintasunaren Europako Batzordearen zigilua, animalien zaintzako AAALAC ziurtagiria eta I+G+Ba kudeatzeko sistemaren UNE 166002:2014 arauaren ziurtagiria ere badauzka CIC biomaGUNEk.

Azken 4 urteotan, % 45 handitu dira bai ikerketa-zentroko langileen kopurua bai I+G+Bko diru-sarrerak; gaur egun, 167 pertsona ari dira lanean (% 51 emakumezkoak eta % 30 nazioarteko langileak), eta, 2021erako, I+G+Brako 14 M€ inguruko diru-sarrerak izatea aurreikusia dago.

CIC biomaGUNEen trebatutako pertsonen nazioarteko arrakasta

Hamabost urte hauetan, “estatuko eta nazioarteko aintzatespena eskuratu du CIC biomaGUNEk, biomaterialen eremuan lortutako emaitza zientifiko bikainei esker. Besteak beste, gure jardueraren ondorioz ezagutza sortu dugu, ikerketa nazioarteratu dugu nazioarteko erakunde eta instituzioekin lankidetzan arituz, eta gure instalazioak komunitate zientifikoari eta industriaren sektoreari ireki dizkiogu”, nabarmedu du Liz Marzánek.

“Oso harro gaude CIC biomaGUNEen zientzian trebatu diren pertsona askok karrera arrakastatsua izaten jarraitu dutelako zientziaren eta teknologiaren munduan, enpresatan edo ikerketa-zentro eta unibertsitateetan lan egitea lortu dutelako eta beren ikerketa-talde propioen buru izatera ere iritsi direlako. CIC biomaGUNEen arrakasta handienetako bat izan da ikertzaileek erakusten duten konpromiso handia, bai funtsezko helburuak lortzen laguntzeko, bai baterako proiektuak definitzeko. Talde-izaera da ziurrenik CIC biomaGUNEen baliorik garrantzitsuenak”, adierazi du Aitziber L. Cortajarena Ikerbasque irakasleak, zeinak CIC biomaGUNEko Zuzendaritza Zientifikoaren ardura hartuko baitu 2022ko urtarriletik aurrera.